




# Antxiñako fotografixia



## Lehenengo Korrikia

Fan dan hilian gure Herritik pasau dana 9. KORRIKIA izan bada, 1980xan izan zan lehenengua. Urte haretako zemendixaren (azaruren) 29xan, San Andres bezperan, eguraldi txakur batekin urten eben Oñatiko unibertsadoko atetik euskeriaren alde AEK era-kundiak antolatutako ibi-

llaldixak. Hasierako metrotan Joxe Mari Satrustegik, Euskaltzandixaren idazkarixak, eruan eben testigu-makillatxua; ondoren herriko agintariak, alkartiak, etab.

Egun haretan, jaixa animauaz, kalerik kale jar-dun ebein **Pikupe** alkarte-ko txarangakuak be buru-tu ebein euren kilometrua. Argazkian ezaguketen

diranak ondorenguak dit-tugu: Xipri Agirre zuen-dari lanetan, batutiaz eta testiguaz; Joxe Mari Ugarte eta Juanito Ormazabal, danborrak plastikoz tapauta eurixak eta edur-gixik ez busteko; Iñaxio Etxezarreta bonbuaz; honen aldame-netan Juan Mari Ezeola-za eta Joxe Mari Narras-pe; atzerago Anjel Mari

Zurutuza eta Joxe Palacín; eta erdi-tapauta Tomas Baños eta Miguel Anjel Zabaleta somaitten dira.

J.E.

Fotografixia Xanti Mendiola-rena da eta argibidiak **Pikupekuak** emundakuak.

## BELAR Irrati-Telebista S.A.

**Elektrizitate instalakuntzak  
Atezain automatikoak  
Elektratresnen salmenta eta konponketa  
TB-HIFI**

Olatua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57 OÑATI

Gu Oñatiarrekin

**G** Guipuzcoano BANKUA